



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA 2021SUBE0003
COD.EXP.

| | |
|----------------------------|---|
| ESPEDEIENTEA EXPEDIENTE | ALOKAIRU SOZIALA BULTZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK |
| TITULARRA TITULAR | AZKOITIKO UDALA |

IRAGARKIA

2021eko apirilaren 8ko Alkatzaren Dekretuz honako ebazpenak onartu ditu:

LEHENA: Azkoitiko udalerrian alokairu soziala sustatzeko honako diru-laguntza hauek emateko 2021erako deialdia onartzea, norgehiagoka-erregimenean:

- Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko gastuei aurre egiteko diru-laguntza.
- Etxebizitzak eraberritzeko diru-laguntza (Bizigune programan parte hartzen duten etxejabeentzat soilik).
- Etxebizitzak eraberritzen badira, obrak egiteko ordaindutako tasa eta zergen zati baten pareko diru-laguntza bonetan.

BIGARRENA: 2021 ekitaldiari dagokion deialdia GAOn, udaletxeko iragarki oholean, gardentasun atarian eta udaleko web orrian ondoko edukiarekin:

1. Diru-laguntzen xedea

Azkoitiko udaleko diru-laguntzen oinarri espezifikoetako honako ataletan norgehiagokaren bidez laguntzak ematea:

- a) Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko gastuei aurre egiteko diru-laguntza.

ANUNCIO

Aprobado por Decreto de Alcaldía de fecha 8 de abril de 2021, las siguientes resoluciones:

PRIMERA: Aprobar la convocatoria para el ejercicio 2021 en régimen de concurrencia competitiva para la concesión de las siguientes subvenciones para promover el alquiler social en el municipio de Azkoitia.

- a) Ayuda económica para afrontar los gastos de obtención del Certificado de Eficiencia Energética.
- b) Ayudas económicas para reformar las viviendas (sólo para los propietarios/as que tomen parte en el programa Bizigune).
- c) En caso de reformar las viviendas, ayuda económica, en bonos, por el equivalente a una parte de la tasa e impuesto abonados por la ejecución de la obra.

SEGUNDA: Publicar la convocatoria correspondiente al ejercicio de 2021 en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios municipal, en el portal de transparencia y en la página web del Ayuntamiento, con el siguiente contenido:

1. Objeto de las subvenciones

Conceder ayudas en régimen de concurrencia competitiva en los siguientes apartados de las bases específicas de subvenciones del ayuntamiento de Azkoitia:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

b) Etxebizitzak eraberritzeko diru-laguntzak.

c) Etxebizitzak eraberritzen badira, obrak egiteko ordaindutako tasa eta zergaren zati baten pareko diru-laguntza bonoetan.

2. Diru-laguntzen zenbatekoa

Diru laguntza bakoitzak, ondoko muga izango du:

a) Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko gastuei aurre egiteko diru-laguntza: Ziurtagiria lortzearen %75a (BEZ barne), gehienez 200 €

b) Etxebizitzak eraberritzeko diru-laguntzak: Diru-laguntza etxebizitza eraberritzeko, obren kostuaren %50a izango da (ez dira kostu lagungarritzat hartuko BEZa eta, oro har, edozein zerga). Diru-laguntzaren gehieneko muga 8.000 € izango da, urtarrilaren 25eko 17/2005 Dekretuak, Monumentu Multzoa izendatu duen Azkoitiko Hirigune Historikoan kokatzen diren etxebizitzentzat, eta 4.000 €ko gehieneko muga aipatutako Monumentu Multzotik kanpoan gelditzen direnentzat.

c) Etxebizitzak eraberritzen badira, obrak egiteko ordaindutako tasa eta zergaren zati baten pareko diru-laguntza bonoetan: Egindako obren baimenagatik ordaindutako zerga eta tasaren % 50aren parekoa eta gehienez ere 450 eurokoa.

Diru laguntzak, Azkoitiko udalaren aurrekontuko 6000.480.933.00.02 partidaren kontura emango dira. Partida honen gehieneko zuzkidura 15.000,00 €.koa denez hori izango da emango diren diru laguntza guztien gehieneko kopurua.

a) Ayuda económica para afrontar los gastos de obtención del Certificado de Eficiencia Energética .

b) Ayudas económicas para reformar las viviendas.

c) En caso de reformar las viviendas, ayuda económica, en bonos, por el equivalente a una parte de la tasa e impuesto abonados por la ejecución de la obra.

2. Importe de las subvenciones

Cada ayuda tendrá el siguiente límite máximo:

a) Ayuda económica para afrontar los gastos de obtención del Certificado de Eficiencia Energética: 75% del coste de obtención del certificado –IVA incluido–, con un máximo de 200 €.

b) Ayudas económicas para reformar las viviendas: La subvención para la rehabilitación de la vivienda será del 50 % del coste de las obras (no será subvencionable el IVA y, en general, cualquier tributo). La subvención máxima será de 8.000 € a las viviendas situadas en el Casco Histórico de Azkoitia declarado Conjunto Monumental por el Decreto 17/2005, de 25 de enero, y 4.000 € de subvención máxima a las situadas fuera del citado Conjunto Monumental.

c) En caso de reformar las viviendas, ayuda económica, en bonos, por el equivalente a una parte de la tasa e impuesto abonados por la ejecución de la obra: Esta ayuda será el equivalente al 50% de lo que se ha abonado por el impuesto y la tasa por la licencia de obra de las obras ejecutadas, sin que pueda superar la ayuda la cantidad de 450 euros.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Eskabideak aurkezteko hurrenkerari erreparatuta emango dira laguntzak, aurrekontuan aurreikusitako dirua bukatu arte. Eskaera aurkeztuztat ulertuko da eskaera eta berarekin aurkeztu beharreko dokumentazio guztia aurkezten denean.

Eskaerak diru-laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen baditu, baina jadanik urte horretarako aurrekontua agortuta badago, hurrengo urteko aurrekontuan aurreikusitako kopurutik finantzazioa lortzeko lehentasuna izango dute, eskaeraren hurrenkera errespetatuta.

3. Diru-laguntza eskatzeko bete beharreko baldintzak

Oro har, 3 diru-laguntza motetarako:

- Laguntzaren onuraduntzat joko dira pertsona fisiko edo juridikoak, pribatuak edo publikoak, ondasun-erkidegoak edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereizi, nortasun juridikorik izan ez arren, edo berariaz onura publikokotzat jotako irabazi-asmorik gabeko erakundea izan arren, etxebizitza erabiltzeko eta aprobetxatzeko legitimatzen dituen eskubide errealean edo beste edozein eskubideren jabe edo titular badira, eta Azkoitian dagoen etxebizitza bat alokairu-kontratu bat sinatzen badute.
- Edozein kasutan, onuraduntzat jotzeko, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, eta Azkoitiko Udaleko diru-laguntzak emateko oinarri orokorretan ezarritako baldintzak bete izana

La concesión de tales ayudas se efectuará con cargo a la partida 6000.480.933.00.02 del presupuesto municipal de Azkoitia. Puesto que la dotación máxima de esa partida es de 15.000,00 €, esa cifra será la cantidad máxima de todas las ayudas que se concedan.

Las ayudas se concederán por orden de presentación de solicitudes, hasta agotar la cantidad prevista en el presupuesto. Se entenderá que se ha presentado la solicitud cuando se presente la misma acompañada de toda la documentación precisa.

En caso de que la solicitud cumpla los requisitos para obtener ayuda pero el presupuesto de dicho ejercicio esté ya agotado, dicha solicitud tendrá prioridad para obtener financiación desde la cantidad prevista en el presupuesto del año siguiente, siempre de conformidad con el orden de solicitudes.

3. Requisitos que deben cumplirse para solicitar la subvención

En general, para los 3 tipos de subvención:

- Se considerará beneficiaria de la ayuda, a las personas físicas o jurídicas, privadas o públicas, comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado, aunque carezca de personalidad jurídica, o entidad sin ánimo de lucro expresamente declarada de utilidad pública, que ostenten la condición de propietarias, usufructuarias, o titulares de derechos reales o cualquier otro derecho que les legitime al uso y aprovechamiento de la vivienda y que firmen un contrato de alquiler de una vivienda



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

egiazatu beharko da

- Alokatu nahi den etxebizitza Azkoitiko udalerrian kokatuta egotea.
- Etxebizitzaren jabea egunean egotea Azkoitiko udalarekin dituen betebeharretan.
- Etxebizitza Bizigune edo Asap programan sartzea (onartuko da 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera sartu izana), eta eranskin bakoitzean arautzen diren laguntzak lortzeko baldintzak betetzea, baita alokairuen kopuruak ere.
- Bizigune edo Asap egitasmoetan sartzen diren etxebizitzek eta haien jabeek une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Diru-laguntza mota bakoitzerako aurreko baldintza orokorrez gain:

Etxebizitzak eraberritzeko diru-laguntza (Bizigune programan parte hartzen duten etxejabeentzat soilik):

- Etxebizitza Bizigune programan sartzea.
- Alokabiren txosten teknikoan ezarritako eta jabetzaren konturako obrak egitea.
- Bizigune egitasmoan sartzen diren etxebizitzek eta haien jabeek une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.
- Eusko Jaurlaritzak etxebizitza birgaitzeko eta Bizigune programaren bidez eskuragarri jartzeko obra partikularretarako diru-laguntzen lerro bat badu, ezinbestekoa izango da hura eskatzea.

situada en Azkoitia.

- En todo caso, para la consideración de beneficiario, habrá de acreditarse el cumplimiento de las condiciones establecidas en el artículo 13 de la Ley General 38/2003 y 18 a 29 del Real Decreto 887/2006 y en las Bases Generales de Subvenciones de Azkoitia.
- La vivienda que desee alquiler estará situada en Azkoitia.
- La propiedad de la vivienda deberá estar al corriente en sus obligaciones respecto al ayuntamiento de Azkoitia.
- Incluir la vivienda en el programa Bizigune o Asap (se admitirá la vivienda incluida a partir del 1 de enero de 2021), cumpliendo tanto la vivienda como el alquiler los requisitos para la obtención de las ayudas que se regulan en cada anexo.
- Las viviendas y propietarios/as que se integren en Bizigune o Asap deberán cumplir los requisitos establecidos en cada momento por la normativa vigente.

Para cada tipo de subvención además de los requisitos generales anteriores:

Ayudas económicas para reformar las viviendas (sólo para los propietarios/as que tomen parte en el programa Bizigune):

- Incluir la vivienda en el programa Bizigune.
- Ejecutar las obras establecidas en el informe técnico de Alokabide y que sean a cuenta de la propiedad.
- Las viviendas y propietarios/as que se integren en Bizigune deberán cumplir los



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Etxebizitzak eraberritzen badira, obrak egiteko ordaindutako tasa eta zergen zati baten pareko diru-laguntza bonetan:

- Jabetza pertsona batek baino gehiagok izango balute, bonoak zein pertsona fisikori eman adierazi beharko dute eskaera egitean (pertsona fisiko bakarra), eta ez badute adierazten, eskaeran lehenengo azaltzen den pertsona fisikoari emango zaio bonoa.
- Azkoitiko Udalari ordaindutako tasak eta zergak etxebizitza Bizigune edo Asap programan sartzeko txosten teknikoan ezarritako obrak egiteko obra-lizentziatik eratorri beharko dira.
- Udalak emandako obra-baimenean zehaztutako epean burutu beharko ditu obrak etxebizitzaren jabeak.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Eskaera inprimakiak behar bezala bete eta Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan aurkeztuko dira, bestek beste, Azkoitiko Udaleko web orriko tramiteak online atalaren bitartez (<https://azkoitia.eus/udala/tramiteak>) edo herritarren arreta zerbitzuan:

- Helbidea: Herriko plaza z. g. 20720 AZKOITIA
- [Astelehenetik ostiralera](#): 07:30-15:30
- [Udako ordutegia: Ekainak 15- Irailak 15 \(biak barne\)](#): 08:00-14:00

requisitos establecidos en cada momento por la normativa vigente.

- En caso de existir una línea de subvención a obras particulares por parte del Gobierno Vasco para rehabilitar la vivienda y su puesta a disposición a través del programa Bizigune, será requisito solicitar la misma.

En caso de reformar las viviendas, ayuda económica, en bonos, por el equivalente a una parte de la tasa e impuesto abonados por la ejecución de la obra:

- En caso de que la propiedad esté compuesta por dos o más personas, en el momento de la solicitud deberán comunicar a qué persona física se le han de entregar los bonos (una única persona física); si no lo comunican, se le entregará el bono a la primera persona física que figure en la solicitud.
- Será requisito que las tasas e impuestos abonados al Ayuntamiento de Azkoitia se deriven de la licencia de obras para la ejecución de las obras establecidas en el informe técnico correspondiente para la inclusión de la vivienda en el programa Bizigune o Asap.
- La propiedad de la vivienda deberá ejecutar las obras en el plazo establecido por el Ayuntamiento de Azkoitia en la licencia de obra.

4. Cuando y dónde presentar las solicitudes

Los formularios de solicitud se cumplimentarán correctamente y se presentarán en cualquiera de las formas previstas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Eskabideak aurkezteko epea, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen eta 2021eko abenduaren 31ra arte izango da.

5. Aurkeztu beharreko agiriak

Interesatutako pertsonak edo entitateek, udalak emandako inprimaki normalizatuan aurkeztu beharko dute diru-laguntza eskaera. Inprimaki hori, interesatuek eskuragarri izango dute Herritarren Arreta Zerbitzuan eta Azkoitiko udaleko web orrian (www.azkoitia.eus).

5.1. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.
2. Zinpeko aitorpena; non beste batzorde, erakunde, organismo, eta abarrei egindako diru-laguntzen eskaerak jasoko diren, edo, hala badagokio, eman zaizkien diru-laguntzenak.
3. Eskatzaileak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria (baldin eta lehendik aurkeztu ez bada edo aldaketaren bat egon bada).

5.2.- Eskatzaileari jakinarazten zaio Azkoitiko Udalak egiaztatu egingo dituela datu-bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik eta beste administrazio batzuetatik oinarri hauetan ezarritako ondorengo baldintzak. Eskatzaileek egiaztapen horren aurka egiteko aukera

Administraciones Públicas, a través, entre otros, de la sección de trámites online de la página web del Ayuntamiento de Azkoitia (<https://azkoitia.eus/udala/tramiteak>) o en el servicio de atención ciudadana:

Dirección: Herriko plaza z.g. 20720 AZKOITIA

De lunes a viernes: 7:30-15:30

Horario de verano: Del 15 de junio al 15 de septiembre (ambos incluidos): 08:00-14:00

El plazo para presentar solicitudes comienza a partir del día siguiente de publicación del presente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y hasta el 31 de diciembre de 2021.

5. Documentación a presentar

Las entidades o las personas interesadas presentarán las solicitudes de ayudas en el impreso de instancia elaborado por el ayuntamiento, que se facilitará a todas las personas interesadas tanto en el Servicio de Atención a la Ciudadanía y en la página web municipal (www.azkoitia.eus).

5.1. Documentación a presentar:

1. Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.
2. Declaración jurada en las que se haga constar, en su caso, la existencia de otras solicitudes de subvención realizadas ante otros departamentos, instituciones, etc. y, en su caso, las subvenciones recibidas.
3. Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por el solicitante (siempre que no se haya entregado con anterioridad o que se haya producido algún cambio).

5.2. Se informa al solicitante, que el



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

izango dute; kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Datu-bitartekaritzako plataformaren bidez eskatuko diren zerbitzuak:

1. Poliziaren zuzendaritza nagusia:

- **Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren nortasun-datuen kontsulta eta egiaztapena.**

2. Gipuzkoako Foru Aldundia eta foru-ogasanak:

-Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta

3. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala:

- **Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean izateari buruzko kontsulta.**

Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko gastuei aurre egiteko diru-laguntza:

-Alokabiderek sinatutako usufruktu-kontratua edo ASAP programaren barruko alokairu-kontratua.

-Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria.
-Fakturaren kopia.

Etxebizitzak eraberritzeko diru-laguntza (Bizigune programan parte hartzen duten etxejabeentzat soilik):

Eskaera aurkezterakoan obrak egin gabe baldin badaude:

-Alokabideren txosten teknikoa, gutxienez egin behar diren obrak adieraziko dituen.

-Etxebizitza Bizigune programak irauten duen epe osoan irauteko konpromisoa azaltzen duen dokumentua.

-Burutu behar diren obren aurrekontuak

Ayuntamiento de Azkoitia va a verificar los siguientes requisitos establecidos en estas bases, desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones. Los solicitantes tendrán la opción de oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberán presentar la documentación pertinente.

Servicios que se solicitarán mediante la plataforma de intermediación de datos:

1. Dirección General de la Policía:

- Consulta y verificación de datos de identidad, de cada una de las personas demandantes de la ayuda.

2. Diputación Foral de Gipuzkoa y Haciendas forales:

- Consulta de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

3. Instituto Nacional de la Seguridad Social:

- Consulta de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones de la Seguridad Social.

Ayuda económica para afrontar los gastos de obtención del Certificado de Eficiencia Energética:

- Contrato de usufructo suscrito con Alokabide o contrato de alquiler dentro del programa ASAP.

- Certificado de Eficiencia Energética.

- Copia de la factura.

Ayudas económicas para reformar las viviendas (sólo para los propietarios/as que tomen parte en el programa Bizigune):

Si las obras no están realizadas al presentar la solicitud:

- Informe técnico de Alokabide, en el que



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

prezio unitario eta globalekin.

Obrak burutakoan, jabeak Alokabideri eta udalari jakinaraziko dio obrak burutu dituela. Eskatutako obrak egin baditu jabeak, usufuktu-lagapeneko kontratua sinatuko dute Alokabideren eta jabearen artean eta honako hauek aurkeztuko ditu:

- Alokabiderek sinatutako usufuktu-kontratua
- Obren fakturen kopia

Etxebizitzak eraberritzen badira, obrak egiteko ordaindutako tasa eta zergen zati baten pareko diru-laguntza bonetan.

- Txosten teknikoa, Bizigune edo Asap programan sartzeko gutxienez egin behar diren obrak adieraziko dituen.
- Obren fakturen kopia.
- Alokairu-kontratuaren kopia.

6. Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak

Diru-laguntzak emateko oinarritzko irizpideak oinarri espezifikoetan 3. eta 4. Artikuluetan zehaztuta daude. Ezarritako baldintzak eta bete beharrak betetzen direla egiaztatu ondoren, dagozkion diru-laguntzak oinarrietan ezarritako baldintzetan emango dira.

7. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Azkoitiko udaleko zerbitzu teknikoek, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eta obrak ikuskatuz gero, beharrezkoa baderitza, txosten teknikoa egingo dute, eta bertan zehaztuko dute zenbatekoa den gehienez ordaindu beharreko diru-laguntza. Txosten horretan oinarrituta dagozkion diru-laguntza

señalará las obras que como mínimo se han de realizar.

- Documento de "Compromiso de incorporación de vivienda en el programa Bizigune durante todo el plazo de duración del programa Bizigune".

- Presupuestos de las obras a ejecutar, con precios unitarios y globales.

Una vez finalizadas las obras, la propiedad comunicará a Alokabide y al Ayuntamiento que las ha ejecutado. Si la propiedad ha realizado las obras requeridas suscribirá con Alokabide un contrato de "cesión de usufructo" y presentará lo siguiente:

- Contrato de usufructo suscrito con Alokabide.
- Copia de las facturas de las obras.

En caso de reformar las viviendas, ayuda económica, en bonos, por el equivalente a una parte de la tasa e impuesto abonados por la ejecución de la obra:

- Informe técnico en el que se señalará las obras que como mínimo se han de realizar para su inclusión en el programa Bizigune o Asap.-

- Copia de las facturas de las obras.
- Copia del contrato de alquiler.

6. Criterios para adjudicar las subvenciones

Los criterios básicos para la concesión de las ayudas se detallan en el art. 3 y 4 de estas Bases.

Comprobado el cumplimiento de las condiciones y requisitos, se concederán las ayudas, en las condiciones establecidas en las bases.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ordaintzeko proposamena egingo dute. Eskaerak jaso eta hilabeteko epean, alkateari edo horrek delegatutako organoari proposamena emango zaio honek aztertu eta onartu dezan.

Ebazpena interesatuei idatziz jakinaraziko zaie eskaeran adierazitako eran: paperean ala elektronikoki.

8. Diru-laguntzen ordainketa

Ordainketa bakarra egingo da, gastua justifikatu eta gero, behin diru-laguntza ematea erabaki eta gehienez bi hilabeteko epean.

9. Araudia

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan honako arauak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala); eta Azkoitiko Udaleko Diru-laguntzen Oinarri Orokorrak eta Espezifikoak (GAO, 171 zk., 2020ko irailaren 8a).

10. Errekurtsoak

Deialdi honen aurka Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez daiteke bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian eta Berraztertze Errekurtsoa deialdi honen ebazpenaren aurka hilabeteko epean.

Epeak deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

7. Plazo de resolución y notificación

Los servicios técnicos del Ayuntamiento de Azkoitia, tras analizar la documentación, y tras la inspección de las obras si considera necesario, elaborará un informe técnico en el que indicará cuál es la cantidad máxima de subvención que se le ha de abonar. En base a dicho informe propondrá el abono de la correspondiente subvención en el plazo de un mes desde la recepción de la solicitud, a fin de que Alcaldía o el órgano en quien delegue resuelva sobre la misma y una vez aceptado por alcaldía, le será comunicada a la persona solicitante.

La resolución se notificará por escrito a los interesados en la forma indicada en la solicitud: papel o electrónica.

8. Pago de las subvenciones

El pago será único, una vez justificado el gasto, una vez resuelto la concesión de la subvención y como máximo en el plazo de 2 meses.

9. Normativa

Para todo aquello no establecido en esta convocatoria se estará a lo dispuesto en: la Ley 38/2003 General de Subvenciones, de 17 de noviembre (Boletín Oficial del Estado de 18 de noviembre); el Reglamento que la desarrolla, aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (Boletín Oficial del Estado de 25 de julio); y las Bases Generales y Específicas de Subvenciones del Ayuntamiento de Azkoitia (BOG, nº 171, de 8 de septiembre de 2020).

10. Recursos

Contra la presente convocatoria cabe interponer Recurso Contencioso-



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

HIRUGARRENA: Erabaki horiek Kontu-hartzaitza sailari jakinaraztea.

**Azkoitian, 2021eko apirilaren 9an.
Alkateak.**

Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses y Recurso de Reposición contra la resolución de esta convocatoria en el plazo de un mes.

El plazo comenzará al día siguiente a la publicación de esta convocatoria.

TERCERA: Comunicar dichos acuerdos al departamento de Intervención.

**Azkoitia, a 9 de abril de 2021.
El Alcalde.**



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU8c3e5885-d859-4d28-bd0d-1c5bf54c000d**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021SUBE0003-iragarkia/anuncio ()